

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA 2019

EUSKERA POESIA 17-18 URTE
HIRUGARREN SARIA:

Maindireen artean Amaiur López Martínez

Segundoak irrikaz igarotzen dira,
zure hurrengo mugimenduaren
 /esperoan/
zentzugabekeriaren errudunek
egiak dastatzen
 dituzten bitartean.

Jada bi kolore elkartu dira
/azken asmoek
geruza zeharkatu zutenetik.

Badakit
hidrogenorik gabe gelditu zarela;
gauak urkor bihurtzen zaituela
 eta
zure arnasaren oihartzuna

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA | IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2019

EUSKERA POESÍA 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA

{Sakonki gorroto duzula}

Denborak argitaratu ditu

maindireen artean

ezkututzen dituzun

/betileak/

Igarkizuna irekitzean

konturatuko zara,

erakarpen indarrik gabe.

Mugimenduak.

[Mugatu egiten direla]